

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

4833

EBAZPENA, 2024ko urriaren 16koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, 2024ko martxoaren 20ko Ebazpena aldatzeko dena. Ebazpen haren bidez, dirulaguntzak eskatzeko beste epe bat eman zen eta finantzaketarako jarritako baliabide ekonomikoak aditzera eman ziren, honen babespean: Euskal Autonomia Erkidegoan sektore estrategikoetako, pertsonen zaintzako eta despopulazio-arriskuan dauden guneetako kualifikazio profesionalarekin lotutako biztanleria aktiboaren kualifikazio eta birkualifikazioko prestakuntzarako reskilling eta upskilling ekintzak garatzeko dirulaguntzetarako bigarren deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2022ko abenduaren 21eko bilkuran erabaki zuen dirulaguntza hauetarako bigarren deialdia onartzea: Euskal Autonomia Erkidegoan sektore estrategikoetako, pertsonen zaintzako eta despopulazio-arriskuan dauden guneetako kualifikazio profesionalarekin lotutako biztanleria aktiboaren kualifikazio eta birkualifikazioko prestakuntzarako reskilling eta upskilling ekintzak garatzeko dirulaguntzak, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. Deialdia 2022ko abenduaren 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 249. zenbakian, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2022ko abenduaren 21eko Ebazpenaren bidez.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2024ko martxoaren 20ko Ebazpenaren bidez (2024ko apirilaren 2ko EHAAn argitaratu zen ebazpen hori), dirulaguntzak eskatzeko beste epe bat eman zen eta finantzaketarako jarritako baliabide ekonomikoak aditzera eman ziren, aipatutako dirulaguntza-deialdiaren babespean. Ebazpen horretan ezarri zen 2024ko abenduaren 31n bukatuko zela kreditu berriaren kargura diruz lagundutako prestakuntza-planak gauzatzeko epea.

2024ko uztailaren 10ean, Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioko Lanbide Heziketako Idazkaritza Nagusiak autonomia-erkidegoei jakinarazi zien «Biztanleria aktiboaren reskilling eta upskilling ekintzak» gauzatzeko epea luzatzea baimendu zuela Europako Funtsen Idazkaritza Nagusiak. Erabaki horretan oinarrituta, bidezkoa da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2024ko martxoaren 20ko Ebazpenean prestakuntza-planak gauzatzeko ezarritako epea aldatu eta luzatzea.

Horrenbestez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak hau

EBAZTEN DU:

Aldatzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren lehen aipatutako 2024ko martxoaren 20ko Ebazpeneko hirugarren puntua. Honela idatzita geratuko da:

«Hirugarrena.– Diruz lagundutako prestakuntza-planak gauzatzeko epea.

2024ko urriaren 22a, astearta

2025eko apirilaren 30ean amaituko da kreditu honen kargura diruz lagundutako prestakuntza-planak gauzatzeko epea».

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 16a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
FRANCISCO PEDRAZA MORENO.